

Asisko gutuna

2015ko Martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

77. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

San Frantziskok heriotzari “arriba” deitzen dio. San Paulok Jainkoarekin egotearren heriotza desioko lukeela dio. Avilako Santa Teresak, berriz, Jaunarekin bat egitearen desioz, hil ezinak hiltzen duela dio. Seguruenik ez gara gu jite horretakoak. Baina bai esan genezake, Jainkoarekiko harremanean sakontzeak ez bakarrik bizia aldatzen digula, baita heriotza bizitzeko era ere.

Gogoetarako gaia

Bizitzeko hil

Hiltzea eta heriotza hitz tabu eta debekatuak dira gaurko munduan. Eta begi-bistakoa da, halaber, ezin diogula heriotzari ihes egin. Ezberdinak gara geure artean: batzuk gazteagoak eta besteak ez hainbeste, altuagoak eta txikiagoak, aberatsagoak eta pobreagoak, gizonezkoak eta emakumezkoak... Baina heriotza denentzat da, berdindu egiten gaitu, gutako inork ez dio ihes egingo ahalegin guztiez ere.

Heriotza hor dago norberaren bizitzan, une bakoitzean, beti. Jaio orduko, hiltzen hasten gara etengabe, zeharo hil arte.

Bizitzan zehar askotan sentitzen ditugu giza mugak, gaixotasunari, oinazeari, sufrimenari ... dagozkionak, eta iruditzen zaigu ez digutela bete-betean bizitzen uzten; baina horrek guztiak hiltzen irakasten digu eguneroko gauza txiki eta gorabeheretan.

Gertuko pertsonetan hartzen dugu heriotzaren esperientzia, batzuetan gaixoaldi luzearen ondoren, baina baita bat batean ere frankotan; eta ez dakigu nola eraman galera horiek eta ahazten saiatzen, gara buruan buelta gehiegi eman gabe; baina geroago edo lehenago errealitate hori gure bizitzan agertzen da.

Izan ere heriotza bizitzaren parte baita, eta prestatuz joan behar dugu hari aurrez aurre begiratu.

Hiltzeko prestatzeak, bizitza egiazko eta bete egiteko prestatzea esan nahi du. Kontuan hartzea geure existentzia finitua dela, eta finitutasun horrek, larriz eta estutasunez bizi badaiteke ere, izan dezakeela zentzua, egunero Jainkoaren bila eta geure izatea haren eskuetan jarriz bizi badugu, horrela bizi bete-betean BIZITZEKO.

Ebanjelioko pasartea: Jn 12, 23-28

Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan dio-tsuet: Gari-alea, lurrian sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du. Larrri dut orain neure barrua. Baina zer esan? Larrialdi honetatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Ez horixe, honetarako etorri bainaiz! Aita, azaldu zeure aintza!» Ahots bat entzun zen orduan zerutik: «Azaldu dut, eta berriro ere azalduko dut».

Frantziskotar espiritualtasuna

« [Hiltzear zela] Frantzisko santuak ogia ekartzeko agindu zuen, bedeinkazioa esan, zatitu eta puska bana eman zien jateko. Gero, Ebanjelioen liburua ekarraraziz, *Pazko-jaia gainean zen* hasten den San Joanen Ebanjelioko pasarte irakurtzeko eskatu zien. Honela Jaunak bere ikasleekin ospatu zuen Afari guztiz santua gogoratzen zuen. Jaunaren Afariaren oroigarria berritzeko egin zuen, hain zuzen, hau guztia, bere anaiei zien maitasun samurra erakutsiz.

Jaunarengana igaro aurretik gelditzen zitzaizkion egun apurrak gorespenean eman zituen, eta bere lagun maite-maiteak berarekin Kristo goratzera gonbidatuz. Berak, ahal izan zuen moduan, salmo hau abes-teari ekin zion: *Oihuka degiot Jaunari deiadar, oihuka degiot Jaunari errege* (Sal 141). Sorkari guztiei ere Jainkoa goastera egiten zien dei, eta lehendik eratuak zituen bertso batzuen bidez Jainkoa maitatzera aholkatzen zituen. Eta guztientzat beldurgarri eta gorrotagarri den heriotza bera ere, gorespen ematera aholkatzen zuen, eta, haren bidera alai irtenik, bere etxera gonbidatzen zuen: «Ongi etorri -esan zuen-, ene arreba heriotza». Eta gero anaiei: «Azkenera iritsi naizela ikustean, jar nazazue lurraren gainean biluzik, herenegun ikusi ninduzuen bezala, eta utz nazazue horrela etzanik, kilometro bat patxadan ibiltzeko behar den denboran». Heldu zen, azkenik, ordua, eta Kristoren misterio guztiak beragan buruturik, Jainkoagana egin zuen hegan zoriontsu (2 Zel 217).

Otoitza

Utz iezadazu aurrera joaten,
gau honetan etzanik, nola erreka laino artean
Zugana, gizakion Jainkoagana, iritsi arte,
Zugan baitaude esna hildakoen arimak.

Erori izandako tristen gorpuak,
izoztuak eta izu-ematekoak, inguratzen naute;
harresi antzean markatzen dituzte nire bide-ertzak,
baina mortu dauzkat nire ibai-hertzak.

Ez dakit non zaren, baina zure bila nabil;
gauean bilatzen zaitut eta nire arimak amets dagi.
Jada hemen ez dauden haiengandik dakit bazarela,
eta nire urek haiengatik desiratzen zaituzte.

Eta badakit, itsasoak gisa, denak
bainatzen dituzula, denen arimak ispilatzen,
eta Zuregana helduko naizela, nire urek
itsasoari zure egiazko urak ematean.

Jose Luis Hidalgo

Gutuneko azken hitzak

“Hiltzea bezain argia den kontua dago, bizitzea.” Charles Chaplin

2015ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mk 9, 2-10	8 Jn 2, 13-25	15 Jn 3, 14-21	22 Jn 12, 20-33	29 Mk 15, 1-38
2 Lk 6, 36-38	9 Lk 4, 24-30	16 Jn 4, 43-54	23 Jn 8, 1-11	30 Jn 12, 1-11
3 Mt 23, 1-12	10 Mt 18, 21-35	17 Jn 5, 1-3, 5-16	24 Jn 8, 21-30	31 Jn 13, 21-33, 36-38
4 Mt 20, 17-28	11 Mt 5, 17-19	18 Jn 5, 17-30	25 Lk 1-26-38	
5 Lk 16, 19-31	12 Lk 11, 14-23	19. Mt 1, 16, 18-21, 24a	26 Jn 8, 51-59	
6 Mt 21, 33-43, 45-46	13 Mk 12 28-34	20 Jn 7, 1-2, 10, 25-30	27 Jn 10, 31-42	
7 Lk 15, 1-3, 11-24a	14 Lk 18, 9-14	21 Jn 7, 40-53	28 Jn 11, 45-57	

Martxoko Otoitza hilaren 26an izango da.

Asis Sarea

646 21 48 96